

Donostiako Udalaren zerbitzu falta Igeldon



Donostiako Udalaren zerbitzu falta Igeldon

Donostiako Udalak Igeldon eskaintzen dituen zerbitzuak behar baino eskasagoak direla ikusten dugu igeldotarrok. 2016an abiatutako parte hartze prozesuan ere halaxe adierazi zuten herritarrek igeldotarren beharrak eta nahiak eza-gutzeko etxez etxe egin zen galdetegiaren bidez. Oinarrizko konponketa, obra edo proiektuak behar ditugunean ere, behin eta berriz egin behar izaten dugu eskaera eta hala ere, batzuetan bakarrik lortzen dugu Donostiako Udalak horiek aurrera eramatea. Beste askotan berriz, erantzunik ez.

Dokumentu honetan, hainbat eskaera bildu ditugu, berez, Donostiako Udalak dagoneko ezagutzen dituenak. Izan ere, horietako asko Udal Erregistroan aurkeztu ditugu edo zuzenean udal ordezkarioi jakinarazi dizkizuegu. 2019 urteari begirako Aurrekontu Partehartzaileetarako ere proposatu genituen hauetariko gehienak. Eta garrantzia txikiena dutenak, Herritarren Postontzian aurkeztu izan ditugu.

Eskaera batzuk aspaldikoak dira; historikoak, Kaxkoa eta kanpina lotuko lukeen espaloia egitearena, adibidez. Egia da, kasu honetan, proiektua aztertu eta zatika egiteko prestutasuna adierazi duzuela, baina zain jarraitzen dugu oraindik. Beste batzuk berriagoak dira eta ez genuke beste hainbeste urte zain egon nahi horiei jaramon egiteko ere.

25 eskaera

Dokumentu honetan, 25 eskaera bildu ditugu, modu labur eta argian azalduta. Ez dira igeldotarrok dauzkagun eskaera bakarrak, gehiago ere badaude, eta batzuk lehentasun gehiago dute beste batzuk baino. Hala ere, hauek aurkeztea erabaki dugu, lehendik ere Herri Kontseiluak eta herritarrek udaletxean eskatuak izan direlako eta behar bezala erantzuteke jarraitzen dutelako.

Badakigu batzuek aurrekontu handia eskatzen dutela, baina horrek ez du esan nahi egin gabe geratu behar dutenik Igeldon direlako. Edozein donostiarrek bezala ordaintzen ditugu zergak eta zenbat inbertitu da Igeldon azken 20 urteetan? Beste lan batzuek gainera, ez dute aurrekontu handirik eskatzen eta hala ere, egin gabe jarraitzen dute.

Helburua

Esan bezala, 25 eskaera bildu ditugu dokumentu honetan. Horiek kontuan hartu eta erantzuna ematen hastea nahi dugu. Eta honekin lotuta, betiko eskaera bat ere luzatu nahi dizuegu: ezer egin aurretik, gurekin harremanetan jartzea. Hau da, egin beharrekoak elkarlanean egitea, lanak ahalik eta egokienak izan daitezen igeldotarrantzat. Eta hemen egin beharreko lan edo eskaini beharreko zerbitzu guztien inguruko informazioa helaraztea Herri Kontseiluari, momentu oro.



IGELDOKO KASKOTIK KANPINERAKO BIDEAN OINEZKOENTZAT ESPALOIA EGITEA

Igeldoko kaskotik kanpinerako bidean oinezkoentzat espaloia egitea. Bere garaian egin zen proiektua berrikustea eta jabetza pribatuekin Udala berriz harremanetan jartzea. Gaur egun errepidetik jende asko ibiltzen da eta oso arriskutsua da.

PILOTEGI BIDEKO GOIKO ZATIA ASFALTATZEA

Pilotegi bideko goiko zatia berritzeko proiektua (asfaltatu, babesgarria jarri eta zabalgunek egin) 2019 urtean egitekoa zen Udala. Foru Aldundiari aurkeztu zitzaion, onartu zuen eta diru laguntza lortu zen proiektu hau aurrera eramateko. 2020 urtean gaude, eta oraindik ez da obra egin.

IGELDOKO ERREPIDE ONDOKO MALDAK EGONKORTZEKO UDALAK ERANTZUN INTEGRALA EMATEA

Igeldoko errepide ondoko maldak egonkortzea. Udalak malden inguruko azterketa orokorra egitea eta aurrerantzean egoera hobetzeko neurri planifikatuak hartzea. Urtekako plangintzak egitea eta urtero aurrekontu bat esleitzea. Lehentasunak jartzerakoan eta lanak egitera-koan Herri Kontseiluaren iritzia kontuan hartzea.

UBIDEAK GARBI MANTENTZEA

Errepideetako bazterrak moztea, moztutakoa ondo jasotzea eta ubideak garbi mantentzea (aitzurrekin eta eskuz, adibidez). Garbiketak maiz egitea eta jarraipen batekin, ez soilik noizean behin. Eta ubide garbiketak eta errepide bazterretako garbiketak ondo koordinatzea, aurreko lana ez dadin alferrikakoa izan.



IGELDOKO ERREPIDE NAGUSIA ETA HERRI BIDEAK EGOERA ONEAN EGOTEKO UDALAK ERANTZUN INTEGRALA EMATEA ETA INZIDENTZIEI LEHENBAILEHEN ERANTZUTEA

Udalak Igeldoko errepide nagusiaren eta herri bideen gaur egungo azterketa egitea eta aurrerantzean egoera hobetzeko neurri planifikatuak hartzea, Herri Kontseiluaren iritzia kontuan hartuta eta koordinatuta. Urtekako plangintzak egitea eta urtero aurrekontu bat esleitzea. Herri bideen berritzea Foru Aldundiaren diru-laguntzen baitan ez egotea.

Horrez gain, sortzen diren zuloak konpontzera lehenbailehen etortzea nahi dugu, behin eta berriz eskatu beharrik gabe.



ESKOLA ZAHARRERAKO PROIEKTUA ONARTUZ, ERAIKIN BARRUA BERRITZEA

Eskola Zaharrerako Igeldotik osatu den proiektua aintzat hartuta (proiektua udal ordezkariari aurkeztuko zaie), eraikin barrua berritzea nahi dugu. Oinarrizko lanak egitea erabili ahal izateko. Eraikina erortzeko zorian dago eta espazio eskaera handia dago gaur egun Igeldon. Horri erantzuteko aukera emango luke.

IGELDOKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETZEA

Igeldoko autobus zerbitzua hobetzea DBus 16 lineari dagokionez: 1) Ibilbide zuzena egitea; 2) Zerbitzua Igeldotik goizean lehenago hastea, goizeko 7:00etan; 3) Asteburu eta jai egun bezperatan, gaueko Buho zerbitzua egotea; 4) Bizikletak igotzeko ordutegia kentzea; 5) Benta Berriko linearekin transbordo egin ahal izatea.

Eta bestetik, landa eremurako zerbitzua jartzea: Behemendiren zerbitzua.

MENDIZORROTZEKO PARKEAN ZERBAIT EGITEA

Mendizorrotzeko parkea abandonu egoeran dago aspalditik, eta ondorioz, suteak askotan izan dira. Herritarren arrisku handia sortzen du egoera honek eta zerbait egitea eskatzen diogu Udalari, gehiago luzatu gabe.



BENTA ALEGREKO KRUEARI KONPONBIDEA EMATEA

Benta Alegreko kruzea (Kristobal Balenziaga 94), Arritxulo bidetik errepide nagusira inkorporatzeko, oso arriskutsu dago. Arritxulotik inkorporatu nahi duenak bisibilitate arazoak izaten ditu eta errepide nagusitik doazen kotxeak abiadura handian pasatzen direnez, egoera arriskutsuak sortzen dira. Abiadura moteltzeko jartzen diren semaforo horietakoa jartzea litzateke gure proposamena. 30 km/h abiaduratik gora doazenentzat gorrian jartzen dena eta abiadura horretatik jais-tean, laranja jarriko litzatekeena.

IGELDON EZ DUTEN ETXE/BASERRIETAN UR HORNIKUNTZA JARTZEA

Gaur egun bada oraindik ur hornidurarik ez duen zonalde bat, Biorreta baserritik gorakoa, hain zuzen. Ekaitz jatetxera eta inguruko etxeetara ez da ur-sarea iristen, oinarrizko zerbitzu bat dena. Orioko aldean bada ur hornikuntza (hori aprobetxatu daiteke agian). Suteei begira ere ondo letorke ur depositu bat jartzea inguru horretan.

ONDAREA ZAINTEA

Igeldon baditugu kultura eta ondare aldetik balioko elementu ugari, baina tamalez, ez daude oso egoera onean. Beste batzuen artean, honakoak daude: Din-din iturria, elur-zuloa, Mendizorrotxeko fuertea... Garrantzitsua iruditzen zaigu garbiketa eta mantentze lan batzuk egitea. Horiek berreskuratzeko lanak egin, herritarrek bisitatzeko moduan jarri eta panel informatiboak jarri. Eta horietako zenbait elementu eremu pribatuetan egon arren, Udalak esku hartu beharko lukeela iruditzen zaigu.

IGELDOKO ITSAS AURRE KULTUR ETXEKO FATXADA KONPONTZEA, TXUKUNTZEA ETA MARGOTZEA

Itsas Aurre kultur etxe ko fatxada konpontzea, txukuntzea eta margotzea nahi dugu. Gaur egun, ipar-mendebaldeko aldeak, batez ere, oso egoera txarrean daude. Hezetasun asko dagoela eta, material babesgarria jartzea ere egokia litzateke.

MARABIETA BIDEAK GUTXIENEN ZABALERA IZATEKO NEURRIAK HARTZEA

Marabieta bideak (Borda Berri baserriaren ondoan) gutxieneko zabalera izateko neurriak hartzea, bidea estutu duen lur jabeari itxiturak epaiaren arabera jartzeko eskatuz. Lur jabe batek jarritako itxiturak direla eta, bidea estututa dago (hesolak bidean bertan sartuta daude) eta pasorako arazoak daude kasu askotan (traktore, furgoneta, etabarrentzat). Bizilagun batzuk epaitegietara jo zuten eta epaia kontrakoa izan du lur jabeak, itxitura kendu egin behar du, baina horretarako 5 urteko epea jarri zioten. Hiru urte igaro dira dagoeneko eta ez du ezer egin.



GUDAMENDIKO KRUIZAN ZEBRABIDEA ETA ZABALGUNEA

Errepide nagusian, Gudamendiko kruzean, zebra bidea behar da errepidea zeharkatzeko. Igeldoko kaxko aldera jartzea nahiko genuke. Horrez gain, zelai aldera dagoen koxka moduko bat gehixeago zabaltzea nahiko genuke. Hori horrela, oinezkoak aukera izango luke kotxerik badatorren edo ez ondo ikusteko, errepidea gurtzatu aurretik. Hondakinen gaikako bilketarako edukiontzia jartzeko puntu egokia ere izan daiteke, zertxobait egokituta.

BUZTINZURI BIDEA KONPONDU ETA PINUAK KENTZEA

Buztinzuri bidean, Belabieta baserriaren inguruan, bidea altxata dago, egoera txarrean. Bide bazterrean dauden hiru pinuk eragiten dute hori. Alde batetik, bidea konpontzea nahiko genuke. Eta bestetik, pinuak ateratzea, etorkizunean berdina ez gertatzeko.

GUDAMENDI BIDEAN ARGITERIA JARTZEA ETA BESTE AUZUNE BATZUK ERE AZTERTZEA

Gudamendi bidean ez dago farola bakar bat ere eta bertako bizilagunak kezkatuta daude segurtasunik ez dagoelako. Gudamendi-Etume auzunean jende asko bizi da. Eskaera egin zioten Udalarari bere garaian, baina jaso zuten erantzuna, argi indarreko posterik ez zegoela. Landu beharreko gaia iruditzen zaigu. Eta Gudamendi inguruneaz gain, beste auzune batzuetan ere aztertu beharko litzateke. Iturrietatik gora (kanpinetik gora), adibidez, errepide nagusian argia jartzea komeniko litzatekeela adierazi izan dute bertako bizilagunek.



KAMIO ETA BORDA BERRI ARTEKO ESPALOIAN BARANDILLA JARTZEA

Errepide nagusiko (Kristobal Balenziaga) espaloia zati bat (Kamio eta Borda Berri baserrien artean) oso arriskutsu dago. Espaloia aldamenean malda dago, altuera handikoa, eta barandilla bat jarri beharko litzateke.



FRONTOIAN KONPONKETAK EGITEA URA EZ SARTZEKO

Frontoi estalia dugu Igeldon, baina ez du ezertarako balio, izan ere, euria egiten duenean ura pilatzen da frontoi barruan. Behar diren konponketa lanak egitea nahi dugu.

IGELDOKO PLAZAKO IRISGARRITASUN ESKAEREI ERANTZUTEA

Igeldoko plazan, irisgarritasunari dagokionez, hainbat eskaera daude oso oinarrizkoak direnak eta horiei erantzutea nahi dugu: Itsas Aurre eraikineko koxkak egokitzea eta igogailua edo antzeko zerbait jartzea; plazako komun publikoetan irisgarritasun baldintzak betetzeko neurriak hartzea; eta orokorrean plaza ingurua egokitzea.



KANPINAREN ONDOKO EDUKIONTZIEN SEGIMENDUA EGITEA, ETA OROKORREAN EDUKIONTZI GUZTIENA

Igeldon behin baino gehiagotan arazoak izan ditugu zaborrarekin. Jendeak nahi duena botatzen du beraien aldamenean eta denetariko zaborra pilatzen da. Obretako hondakinak askotan. Jasotzeko behin eta berriz abixua pasa behar izaten dugu eta denbora pila itxaron. Puntu beltz nagusia, kanpinaren ondoko edukiontzien gunea da, baina orokorrean, landa eremuko edukiontzi gehienetan gertatzen da hori; Arri txulo bidean eta Igara aldean, adibidez.

Behar diren neurriak hartzea nahi dugu arazoa konpontzeko eta zaborra edo eskonbroak pilatuta daudenean, lehenbailehen jasotzea.

ALTZARI HANDIAK BEHAR DEN MAIZTASUNAREKIN JASOTZEA

Altzari handiak atera eta jasotzeko egun jakinak daude. Egia da herritar batzuk ez dituztela egun horiek errespetatzen eta nahi dutenean ateratzen dituztela, baina altzari horiek denbora pila batean egoten dira jaso gabe. Dagokigun zerbitzua eskaintzea nahi dugu eta behar den maiztasunarekin jasotzea, gu atzetik ibili gabe.



HONDAKINEN GAIKAKO BILKETARAKO EDUKIONTZI GEHIAGO JARTZEA

Igeldoko hondakin bilketaren inguruko azterketa txiki bat egin dugu eta konturatzen gara gaikako bilketa behar bezala egiteko, edukiontzi gehiago behar ditugula. Honako hiru puntutan behar dira:

- Benta Alegre inguruan: Kontuan izanda Arritxulo bideko kontenedorea kendu dela, bertako bizilagunei nonbait eman behar zaie zerbitzua. Horrez gain, Kooperatibaren eraikina dago bertan eta laster denda zabalduko dutela ikusita, egokia litzateke bertan edukiontziak jartzea. Puntu horretan lehendik ere badago errefusaren edukiontzia. Orain, edukiontzi horia, urdina eta beiraren iglua jartzea nahiko genuke.

- Etume-Gudamendi: Auzune horretan jende ugari bizi da eta komeni da edukiontzi horia eta urdina jartzea.

- Tximistarriko isletan: Errefusaren edukiontzia dago. Edukiontzi horia, urdina eta beiraren iglua jartzea nahiko genuke.

Ezezko erantzuna jaso dugu, lekurik ez dagoela arrazoituz. Lekuak egokitzeko aukera badago eta bestela, puntu egokiagoak bilatu daitezke.



UMEEN PARKEKO ZORUA KONPONTZEA

Igeldoko plazan umeentzako parkea dago. Bertako zorua egoera kaxkarrean dago aspalditik. Lurra zartatua dago puntu askotan. Konpontzea nahiko genuke.

GOIKO PARKINEKO LURZORUA EGOKITZEA

Herriko kaskoan dagoen goiko aparkalekuko lurzorua (Eskola ondoko aparkalekukoa) ez da batere egokia. Denbora tarte gutxian, konponketa ugari egin behar izan dira jarrita dagoen materiala solte geratzen delako ibiliaren ibiliarekin, piezak mugitu egiten direlako. Gainera, material irristakor xamarra da. Beste material edo sistema egokiagoren bat nahiko genuke bertarako.



ZERUTXOKO KURBA AURRETIK SEINALEA JARTZEA OINEZKOENTZAT

Zerutxoko kurba aurretik (Antiguotik Igeldorako zentzuan), ezker aldeko espaloia bukatu egiten da kurban bertan, eta oinezko asko ezin bidea gurutzatu geratzen dira (lekua ezagutzen ez duten turista asko). Ondorioz, errepidetik jarraitzen dute oinez eta oso egoera arriskutsuak sortzen dira. Kurba aurreko zebrabidean seinale bat jartzea litzateke konponbidea. Hau da, oinezkoek bidea gurutzatu behar dutela adierazten duen seinale bat.

Espaloi zatia konpontzen aritu zirenean, mezu bera adierazten zuen seinale bat jarri zuten eta halako zerbait jartzea litzateke (argazkian ikus daiteke nolako seinalea jarri zen obra garaian). Seinale finko bat jartzea litzeke, mezu berdinarekin.